47/2018 EBAZPENA, otsailaren 12koa, Uribe ESIko zuzendari gerentearena. Honen bidez, Mª Asunción Urdampilleta Hurtado de Saracho andrea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Uribe ESIko Gerentzia-Zuzendaritzako Zuzendaritzako idazkari izendatu dute izendapen askearen bidez.

Azaroaren 20ko 415/2017 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribe ESIko Gerentzia-zuzendaritzako Zuzendaritzako idazkari lanpostu bat izendapen askearen bidez betetzeko deialdia onartu zen.

Balorazio batzordeak aurkeztutako eskabidea baloratu du, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Mª Asunción Urdampilleta Hurtado de Saracho andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: pertsona hori izendatzea, izendapen askearen bidez, Zuzendaritzako idazkari Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribe ESIko Urdulizko Ospitalean.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. Artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, honakoa

**EBAZTEN DUT:**

Lehena.- Mª Asunción Urdampilleta Hurtado de Saracho andrea Zuzendaritzako idazkari izendatzea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Uribe ESIko Gerentzia-Zuzendaritzan.

Bigarrena.- Izendapen honi dagokionez, ondoriotarako data hau izango da: 2018ko otsailaren 12a.

Hirugarrena.- Izendapenak egin dituen organoak diskrezionalki kargugabetu ditzake, izendapen askeko sistemaren bidez dagozkion lanpostuetan izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo lanpostutik mugiarazteak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatuko dela, baina edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko diela. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik betetzen zuen lanpostuak zeuzkan ezaugarri berberekin antolakuntzari eta lurraldetasunari dagokionez. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta Osakidetzak berak ezarritako prozedurari jarraituz gauzatuko da. Lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.- Ebazpen hau interesdunari eta Ezkerraldea Enkarterri Gurutzeta ESIri jakinaraziko zaie.

Bosgarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen honi dagokion iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Urdulizen, 2018ko otsailaren 12an

Osakidetza
URIBE ESI
OSI URIBE
GERENTZIA
GERENCIA
C/ Goieta, 32 - 48610 URDULIZ
Tfno.: 946134829

Uribe ESIko zuzendari gerentea
Mª Luz MARQUÉS GONZÁLEZ

Osakidetza

RESOLUCIÓN Nº 47/2018 de 12 de febrero, de la Directora Gerente de la OSI Uribe, por la que se nombra mediante libre designación, a Dña. Mª Asunción Urdampilleta Hurtado de Saracho Secretaria de Dirección de la Dirección-Gerencia de la OSI Uribe de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Mediante Resolución 415/2017 de 20 de noviembre se convocó la provisión, mediante libre designación, de un puesto de Secretaria de Dirección de la Dirección Gerencia de la OSI Uribe de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Efectuada por la Comisión la valoración de la solicitud presentada así como la correspondiente propuesta de nombramiento, y a la vista de los conocimientos académicos y profesionales que concurren en Dña. Mª Asunción Urdampilleta Hurtado de Saracho procede efectuar su nombramiento, mediante libre designación como Secretaria de Dirección de la Dirección Gerencia de la OSI Uribe de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 28 Norma Común Tercera de la Ley 8/1997 de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, en el Decreto 186/2005, de 19 de julio, por el que se regulan los puestos funcionales de Osakidetza, y en el Decreto 255/1997 de 11 de noviembre.

**RESUELVO:**

Primero.- Nombrar a D. Mª Asunción Urdampilleta Hurtado de Saracho Secretaria de Dirección de la Dirección-Gerencia de la OSI Uribe de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Segundo.- El presente nombramiento surtirá efectos económicos y administrativos desde el 12 de febrero de 2018.

Tercero.- El personal nombrado para puestos de trabajo por el procedimiento de libre designación podrá ser cesado con carácter discrecional por el órgano que efectuó el nombramiento. El cese o la remoción supondrá el traslado a otro puesto funcional, manteniéndose en todo caso las condiciones propias de la categoría que ostente el interesado, efectuándose la adscripción a puesto de las mismas características y preferentemente en el mismo ámbito organizacional y territorial que venía ocupando con anterioridad a su nombramiento. La adscripción tendrá efectos del día siguiente al de la fecha de cese y se efectuará conforme al procedimiento que se fije en Osakidetza. Deberá reunir todos los requisitos y condiciones exigidos para la provisión del puesto.

Cuarto.- Notifíquese la presente resolución al interesado y a la OSI Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces.

Quinto.- Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación de su Anuncio en el BOPV.

En Urduliz, a 12 de febrero de 2018.

La Directora Gerente de la OSI Uribe
Mª Luz MARQUES GONZÁLEZ

Osakidetza
URIBE ESI
OSI URIBE
GERENTZIA
GERENCIA
C/ Goieta, 32 - 48610 URDULIZ
Tfno.: 946134829

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD